

DIRU-ITURRIAK

Gure plataforma Donostiako taxi-zerbitzu ofiziala digitalizatzeraz eta optimizatzeraz bideratuta dagoenez, erabiltzaileek ordaintzeko prest dauden prezio eta formulak taxien egungo tarifetan, erosotasunean eta eskaintzen dugun balio erantsian oinarritzen dira. Gure diru-sarrera eredua honela egituratzen da:

1. Diru-sarrerak

Ordainketa bakarreko diru sarreretan izango ditugu irabaziak ordainketa errepiariak alde batera uzten.

Donostiako erabiltzaileek taxiaren tarifa ofiziala ordaintzen jarraituko dute, baina gu honela irabaziko dugu:

- Bidai bakoitzeko komisioa (kobrantza txikia eta araudiaren barruan)

Plataformak ibilbide bakoitzean komisio txiki bat jasoko du taxi-gidariak jasotzen duten ordainketatik. Hau ez da tarifa ofiziala aldatzea, baizik eta erreserba digitalaren kudeaketa kostua.

- Tarifa dinamikoak erabiltzen dira

Eskari-eskaintzaren egoeraren arabera gure komisioa aldatu egiten da (ordu-puntak, jai-egunak...). Honek erabiltzaileek une jakin batzuetan gehiago ordaintzeko prest egon daitezela erakusten du, baldin eta zerbitzua azkarrago eta eskuragarriago bada.

- Mailegu bat eskatuko dugu

Negozioa martxan jartzeko hasierako inbertsioa beharrezkoa denez, 25.000 euroko mailegu bat eskatzea aurreikusten dugu, ekipamendua, hasierako gastuak eta lehen hilabeteetako funtzionamendua estaltzeko.